

# EKONOMIA TA LAN MUNDUA

## (2013-02-18)

Bermeoko Kultur Etxean

### BILERAREN ERREALITATEA

**PARTAIDE KOPURUA:** 11 pertsona (Idurre Bideguren, Javier Kareaga, Imanol Rodríguez, Ekaitz, Bego Gangoiti, Gaizka Ormaza, Gaizka Aurrekoetxea, Esteban, Iruñe Ormaetxea, Aritz eta Maitane)

### UDALETIK

- Turismo zinegotzia eta alkatea
- Turismo teknikaria
- Ingurumen teknikaria

**DINAMIZATZAILEA**  
**IDAZKARIA**  
**BOZERAMAILEAK / ORDEZKARITZA**

**Maitane**  
**Bego Gangoiti**  
**0**

**BILERA ORDUA:**  
**LEKUA**

**19:30 – 21:15**  
**KULTUR ETXEAN**

### EZTABAIDATUTAKO GAIAK

- **San Juan Interneten**

Esteban: Kontuan izanda Esteban Interneteko aditua dela eta jadanik lan bat eginda daukala eta lan horri esker dat batzuek dauzkala San Juan buruz, hurrengo aurkezpena egin du:

1. *Situación turística de Bermeo (ON LINE):* Bermeo on line es percibido como destino turístico y dobla a Bakio en relación con San Juan de Gaztelugatxe.
2. *Situación turística de San Juan:* Es la 2ª búsqueda a nivel de Euskadi tras el Guggenheim y el primero mejor valorado.
3. *Como estimular el turismo a Bermeo desde San Juan:* hay que copar los primeros resultados en buscadores bien modificando la actual web municipal, o creando un espacio on line específico de turismo. Esto crea un escaparate on-line de Bermeo en San Juan que asegurará un incremento de visitas
4. *Algunas cifras :* Se presentan algunas cifras de eustat, Ibiltur, rotores de web... donde se aprecia que un adecuado tratamiento de San Juan-Bermeo aumentaría el nivel de visitantes a Bermeo así como de ingresos económicos

5. *Como desarrollar una oferta turística seductora de Bermeo:* En este punto Esteban se planta ya que es una labor a realizar a nivel municipal. “¿Cómo vendemos Bermeo de una manera seductora?”

Turismoa herriko industria bat da eta horrela tratatu behar da eta protagonistak (enpresak) sartu proiektu orokorrean.

*Bego:* turismoa aktibitate ekonomiko berria da, eta aldakuntza bat behar du guztion pentsatzeko eran, eta sektorearen jarrera garapen honetan oso garrantzitsua da ze azken urteotan jadanik aldakuntza bat egon da.

*Gaizka Ormaza:* Eskaintza antolatu egin behar da sektoretan

*Esteban:* la oferta va por sectores, y nuestra oferta habrá que diferenciarla aportando dinamismo a la web.

*Imanol:* Guggenheim hasi zenean inork ez zuen ikusten izan aukera ekonomiko moduan turismoa. Bermeo memento honetan egoera berdinean dago. Turismoa ekonomikoki bultzatu eta baita herri moduan

*Ekaitz:* Zergatik etorri Bermeora? Hiru ardatz daude : itsas paisaia, kondaira, eta egun pasa. Bere proposamenean azaltzen ditu hirugarren ardatz hauek.

*Irene:* Baina oraindik lan asko egin behar da gure eskaintza behar den moduan aurkezteko bisitariari, Getarian egiten duten moduan adibidez.

*Gaizka Aurrekoetxea:* Turismoa sustatu behar da baina kontuan izan behar dira tokikoak, bermeotarrak, gustura egon daitezten Bermeon, horrela euren gustu hori islatzeko datozen artean. Lortzen badugu Bermeotarrak konturatzea daukagunarekin, ba aurrerakuntza izugarria izango litzateke. Identitatea kultura aldetik garatzea lotuta doa.

*Gaizka Ormaza:* herriko jendea estrategikoa da herriaren garapenerako. Talde hau lan eta ekonomi taldea da, beraz etekin ekonomiko bat ere egon behar da.

*Esteban:* Si quisiéramos elegir una característica de Bermeo, ¿cúal elegiríamos?

*Gaizka Aurrekoetxea:* Bermeo memento honetan aldaketa baten dago, beraz identitate hori gaur egun ez dago definituta

*Idurre:* Bermeo zer izan behar den beharbada ez da eztabaidatzeko mementoa. Eztabaidatu behar dena da jadanik daukaguna, paisaia batez ere itsasoari lotuta, bertoko istorioa eta herriko giroa. Hiru puntu hauek nahiko erakargarria dira nahi dugun garapenerantz joateko.

*Aritz:* Eskaintza egokitzeko aukera egon dago, baita nahi ditugun ordutegiak eskainita bisitariari. Bilbo da turista gehienak lo egiten duten lekua eta Bermeo aukeratzen dute egun pasa egiteko.

*Gaizka Ormaza:* Berak aurkeztu duen proposamena da San Juan eta Urdaibai aukera estrategiko bezala hartuta. Hiru zango hartu irudi moduan, ze San Juaneko kontaerak horrela diolako, eta helburuak jarri hirugarren esparrutan: kultura, industria eta arrantza. Ibilbide baten bidez herriko lekurik interesgarrienak bisitatu, beti erreferentzi bezala izanda aurreko esparruak, eta panel batzuk jarri lekurik interesgarrietan: Fraile Leku, Torrontero, Bastarre, San Juan Portala, Udaletxea, Lamera. San Juanen web cam bat ipintzea oso interesgarritzat jotzen da. Eta proposamen moduan San Juaneko begiratokian jartzea Zerbitzu-bulego-taberna bat, bertatik jendea Bermeorantz bideratzeko.

*Aritz:* Aurreko egunean proposatutako ibilbidea azaldu du gaineratik.

*Gaizka Aurrekoetxea:* ibilbide ekologikoak ere daudela gogoratu du azpimarratuz herri ibilbideak direla ibilbide ekologikoak

*Idurre:* Informazio asko batu denez, proposatzen da informazio guzti hori ordenatzea, forma ematea eta turismo mahaiari azaltzea eta guztion artean linea estrategikoak ipini

ekintza konketuak proposatu eta azaldu. Turismo mahaiari eta beste agente batzuei azaldu aurretik talde honetatik pasako litzateke dokumentua.

- **Beste gai batzuk** landu behar dira talde honetan: kontsumo taldeak, hirigintza taldean jorrotutako hiru puntu (Zaragoitxi, tunelak, San Migel)... Beraz, proposatzen da hurrengo batzarrean gaiak aztertzea eta egutegi bat jartzea.

## **HURRENGOKO BATZARRA**

**Martxoak 11, astelehena, arratsaldeko 19:00etan Kultur Etxean.**